

2015 APL 30

..... (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 APL 30
ABR 30



KARATULA

LEGAZPIKO ONTZI ARINAK SAILKATZEKO PLANTAN, BALBULA BIKOITZEKO BEREIZGAILU OPTIKOA ETA INDUKZIOZKO BEREIZGAILUA HORNITU, MUNTATU ETA EZARTZEKO KONTRATUA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA

1.- Erakunde kontratatzailea eta kontratazio organoa

- Erakunde kontratatzailea: Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAU. (GHK).
- Kontratazio organoa: GHKko Administrazio Kontseilua.

2. GHKren kontratazio profilaren kontsulta:

Erakundearen webgunearen bitartez: <https://www.ghk.eus>

3. Lizitazio iragarkiak argitaratzeko gastuak:

Ez

4. Onartua izateko dokumentazioa aurkezteko lekua eta epea:

- Dokumentazioa aurkezteko lekua: GHKko bulegoak (Ibaiondo Poligonoa 27, 3; Orbeagoz eraikina; 20.120, Hernani).
- Dokumentazioa aurkezteko epea: 2015eko MAIATZAREN 25a, 13:00ak ARTE.

5. Helburua:

Kontratuaren helburua da LEGAZPIKO ONTZI ARINAK SAILKATZEKO PLANTAN, BALBULA BIKOITZEKO BEREIZGAILU OPTIKOA ETA INDUKZIOZKO BEREIZGAILUA HORNITZEA, MUNTATZEA ETA EZARTZEA.

6. Kontratazio teknika:

Prozedura negoziatu publizitateduna.

7. Kontrata gauzatzeko epea.

Kontratu hau gauzatzeko 14 ASTEko epea izango da, kontratua formalizatzen den egunetik hasita.

8. Kontratuaren balio zenbatetsia.

Gastuaren gehieneko muga 199.999€ izango da (BEZ sartu gabe).



[Handwritten signature]

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2015 API. 3 0

Aprobado por Consejo de Administración. (elan onartua)

Hernani,

2015 API. 3 0

ABR. 3 0



[Handwritten signature]
Idazkaria

**LEGAZPIKO ONTZI ARINAK SAILKATZEKO
PLANTAN, BALBULA BIKOITZEKO
BEREIZGAILU OPTIKOA ETA INDUKZIOZKO
BEREIZGAILUA HORNITU, MUNTATU ETA
EZARTZEKO KONTRATUA ARAUTUKO DUTEN
KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN
AGIRIA**



GHK

Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2015 API. 3 0

..... (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 API.
ABR. 3 0



GHK
Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

Idazkaririk

AURKIBIDEA:

1	KONTRATUAREN HELBURUA.....	5
2	ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA.....	5
3	GAUZATZEKO EPEA.....	5
4	LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.....	5
5	PREZIOAK BERRIKUSTEA.....	5
6	KONTRATUAREN DOKUMENTUAK ETA KONTRAESAN KLAUSULA NAGUSIA.....	6
7	KONTRATATZAILEAREN PROFILA.....	6
8	PUBLIZITATEA.....	6
9	ORDAINTZEKO MODUA.....	6
10	FINANTZAKETA.....	6
11	BERMEAK.....	7
12	KONTRATUA ALDATZEA.....	7
13	KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK.....	7
14	KONFIDENTZIALTASUNA.....	7
15	KONTRATUA GAUZATZEA.....	8
16	HORNIDURA HARTZEA ETA BERME EPEA.....	8
17	ZIGORRAK.....	9
18	KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.....	10
II. KAPITULUA.- KONTRATUA ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA..		10
19	ESLEITZEKO PROZEDURA.....	10
20	KONTRATATZEKO GAITASUNA.....	10
21	PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA.....	11
22	DOKUMENTAZIOAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.....	12
23	PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA.....	13
24	KONTRATUAREN IZAPIDEAK ETA NEGOZIAZIO FASEA.....	17
25	AURKEZTUTAKO ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.....	17
26	KONTRATAZIO MAHAIA.....	19
27	ESKAITZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA.....	19
27.1	Eskaintzen sailkapena.....	19



GHK

Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

27.2	Eseipena.....	20
28	KONTRATUA EGITEA ETA FORMALIZATZEA	20
29	KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.....	21
30	JURISDIKZIO ESKUDUNA.....	22
I.	ERANSKINA- ERREGISTROAN ENTREGATZEKO PROPOSAMEN EREDUA.....	23
II.	ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEZKO ADIERAZPENAREN EREDUA	24
III.	ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA	25
IV.	ERANSKINA. BERME EREDUA	26

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2015 API. 30

..... (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015

API.
ABR. 30



GHK
Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

Gazkarriak,

I. KAPITULUA. KONTRATUAREN EDUKIA

2015 API. 30

API:
AER:

30

Idazkaririk,

1 KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren helburua da balbula bikoitzeko bereizgailu optikoa eta indukziozko bereizgailua ezartzeko beharrezkoak diren ekipoak hornitu, muntatu eta martxan jartzea. Ekipo horiek Legazpiko (Gipuzkoa) ontzi arinak sailkatzeko plantan txertatuko dira, lizitazio hau arautuko duten baldintza administratiboen nahiz teknikoaren agirietan jasotako hedadurari eta baldintza teknikoari jarraituz.

2 ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Erakunde kontratatzailea GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, SAU sozietatea da (aurrerantzean, GHK).

Kontratazio organoa, berriz, Administrazio Kontseilua da; eta honek, aplikagarri zaizkion zuzenbide pribatuko arauak jarraituz, bidezkotzat jotzen dituen pertsonak ahaldundu ditzake, espresuki, kontratuarekin zerikusia duten jarduera zehatzak gauzatzeko.

3 GAUZATZEKO EPEA

Kontratu hau gauzatzeko 14 ASTEko epea izango da, kontratua formalizatzen den egunetik hasita. Gehieneko epe horren barruan egingo da behin-behineko harrera; hau da, ekipoa hornitu, ezarri eta martxan jarri dela frogatuko da.

Epe hori betetzean kontratista bere eginkizunean atzeratu egin dela ulertuko da, GHKren aldetik aurrez ohartarazi beharrik gabe.

4 LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen lizitaziorako oinarritzko aurrekontua **EHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI MILA BEDERATZIEHUN TA LAUROGEITA HEMERETZI EURO (199.999 €)** da (BEZ sartu gabe).

Kontratu honen prezioa esleipendunaren eskaintza ekonomikoan zehaztutakoa izango da. Edonola ere, kontratuaren prezioak ezingo du lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (BEZ gabe) gainditu. Zenbateko hori gainditzen duten proposamenak baztertu egingo dira.

5 PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez dira berrikusiko.

6 KONTRATUAREN DOKUMENTUAK ETA KONTRAESAN KLAUSULA NAGUSIA

Kontratu izaera izango dute, eta beraz, alderdiek derrigorrez bete beharko dituzte dokumentu hauek eta dagozkien eranskinak:

1. Klausula Administratibo Berezien Agiri hau.
2. Ezaugarri Tekniko Berezien Agiria, Klausula Administratibo Berezien Agiriak aurkakorik xedatzen ez duen guztian.
3. Kontratua formalizatzeko dokumentua eta aurrerago kontratuari eranstean zaizkion garapen dokumentuak.
4. Esleipendunak aurkeztutako eskaintza.

Kontratua sinatzen duen momentuan, esleipendunak dokumentu horiek guztiak sinatu beharko ditu, horiekin ados dagoela adierazteko.

Xedapenetan kontraesanik badago, klausula honetan ageri diren hurrenkeraren arabera interpretatutako dira, era horretan, hurrenkeran lehenago dagoenak izango baitu lehentasuna atzekoen gainetik.

7 KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Kontratuari lotutako jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna bermatzeko, eta jendeak informazio hori kontsultatu ahal duela ziurtatzeko, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak kasuan kasu eskatzen dituen bestelako publizitate bitartekoak erabiltzea eragotzi gabe, lizitatzailleek GHK-ko webgunean kontsultatu ahal izango dute kontratatzailearen profila: <http://www.ghk.eus>

8 PUBLIZITATEA

Lizitazio hau eta kontratuaren esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

9 ORDAINTZEKO MODUA

Kontratuaren prezioa kasuan kasuko faktura GHKri aurkeztu eta honek bere adostasuna ematean ordainduko da. Hala ere, kontratua sinatzeko unean % 5 aurreratuko du GHK sozietateak.

10 FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko finantzaketa aurreikusita dago, indarrean dagoen aurrekontuaren kargura.

11 BERMEAK.

Kontratuaren esleipendunak behin betiko bermea eratu beharko du, esleipenaren zenbatekoaren % 5aren baliokidea (BEZ sartu gabe), bere gain hartutako obligazioak beteko dituela bermatzeko.

Berme hori 10 egun balioduneko epean eratu beharko da, 27. klausulan aipatutako errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik hasita. Berme hori eratzeko, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren (SPKLTB) 96. artikuluan ezarritako edozein bide erabil daiteke.

Abal moduan eratzten bada, Agiri honetako **IV. Eranskinean** ageri den ereduaren arabera izango da.

Berme eratu izana egiaztatzeko bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabil daitezke. Eskakizun hori ez bada betetzen lizitatzailari egoztekoak diren arrazoiak direla tarteko, GHKk ez dio kontratua esleituko.

SPKLTBren 102. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, berme epea igaro eta esleipendunak kontratuko betekizun guztiak bete ostean itzuliko da bermea, osorik edo, hala egokituz gero, zati bat.

12 KONTRATUA ALDATZEA

Interes publikoko arrazoiak direla-eta, SPKLTBak 107. artikuluan aurreikusitako zirkunstantziaren bat gertatzen bada, GHK-k kontratua aldatu ahal izango du, betiere aldaketa horrekin lizitazioaren oinarriko aurrekontua gainditzen ez bada eta lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Arestian aipatutako aldaketa posible horiek derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

13 KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Kontratastak kontratua bete egin behar du, horretarako ezarritako guztizko epearen barruan. Kontratua, halaber, klausuletan eta baldintza-agirietan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko du, betiere Kontratazio Organoak kontratua ulertzeko eman dakizkiokeen jarraibideekin bat.

Kontratastak bete egin beharko ditu lan esparruan indarrean dauden xedapen guztiak, hala nola Gizarte Segurantzza, Laneko Segurtasun eta Higiene, eta Laneko Arriskuen Prebentzio alorrean indarrean daudenak.

Kontratastak datu pertsonalak eskuratzen baditu, Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, eta berau garatzen duen araudian ezarritako betekizunak bete beharko ditu.

14 KONFIDENTZIALTASUNA

Prozeduran parte hartzen dutenei esleipenaren berri emateari buruz Agiri honetan xedatutakoa baldintzatu gabe, Kontratazio Organoak ezin izango du jakitera eman enpresariak argibide konfidentzial gisa emandako informaziorik; halakotzat hartuko dira, bereziki, sekretu teknikoak edota merkataritzakoak.

Kontratatik konfidentzialtasun osoa errespetatuko du kontratua gauzatzerakoan eskura dezakeen informazioari dagokionez, betiere informazio konfidentzialtzat jo bada, edota, duen izaeragatik, konfidentzialtasunez tratatu beharrekoa bada.

15 KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua klausula administratibo berezien agirian aurreikusitako epean gauzatuko da, sinatzen den momentutik aurrera kontatuta.

Ondasunak baldintza-agirietan finkatutako epean eta lekuan entregatuko dira, baldintza teknikoak eta klausula administratiboak betez betiere.

Kontratataren arrisku eta menturan gauzatuko da kontratua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 231. artikuluan ezinbesteko kasuei buruz xedatutakoa eragotzi gabe, kasu honetan espresuki aplikagarria baita xedapen hori.

Kontratu hau gauzatzean, zehatz-mehatz beteko dira Agiri honetako xedapenak, Ezaugarri Teknikoen Agirien xedatutakoak, eta kontratuaren arduradunari kontratuaren interpretazio teknikoa egiteko emandako jarraibideak.

16 HORNIDURA HARTZEA ETA BERME EPEA

a) Harrera egin aurreko probak:

Kontratua sinatu eta gero, hornitzaileak hornitutako ekipoen probak egiteko prozedurak proposatuko dizkio GHKri; eta honek, prozedura horiek onartu edota aldaketak proposatu ahal izango ditu, bi aldeek erabateko adostasuna lortu arte.

Proba horien helburua izango da, kontratatutako ekipoei honako agiri honetan finkatutako baldintza teknikoak betetzen dituztela egiaztatzea, eta behar bezala funtzionatuko dutela bermatzea.

Lizitatuak, bere ekipoei (osagarriak barne) onartzeko egingo diren proben protokolo osoa sartuko du bere eskaintzan.

Ekipoei martxan jartzeko eta behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren probak esleipendunaren kontura egingo dira.

Kontratu honetan jasotako ekipoei instalatuta daudenean, segidan aipatutako diren probak egingo dira, adostutako prozedurari jarraituz, hornitzailearen nahiz GHKren ordezkaria aurrean direla:

- Ekipoa instalazioaren koadro orokorrari lotua dagoela egiaztatuko da; era berean, abiorako, geldialdi sekuentzialerako eta larrialdiko geldialdirako automatismoak egiaztatuko dira.
- Ekipoa hutsik probatuko da, funtzionamendu orokorra eta kontsumoak egiaztatzeko.
- Ekipoa kargatuta probatuko da, kontsumoak eta ekipoen abioaren eraginkortasuna egiaztatzeko.
- Instalatutako ekipoen eraginkortasuna eta purutasuna egiaztatuko da.

Ekipoak instalatu ostean, behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatuko da GHKko ordezkarien aurrean, eta egin beharreko doikuntzak egin.

Hiru aldeek banaka onartuko dituzte proba horiek; eta horretarako, ekipoak, osagarriak, funtzionamendua eta proposatutako irtenbideak egokiak direla egiaztatuko dute.

b) Harrera.

Hornidura egiten den egunetik hasi eta gehienez hamabost egunen barruan, hornidura hori onartzeko egintza formal eta positiboa burutuko da, eta Behin Betiko Harrera Akta sinatuko.

Hornidura ez badago onartzeko moduan, gorabehera hori espresuki adieraziko da Harrera Aktan, eta antzemandako akatsak zuzentzeko edota, itundutakoari jarraituz hornidura berria egiteko aginduko zaio kontratistari. Agindutako zuzenketa edo ordezkapena egin ezean, GHKk kontratistaren gain utziko du ardura: ordainketa egitetik salbuetsita geratuko da edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea erabiliko du.

Ekipoaren harrera egin ondoren, instalazioko langileei elementu horien erabilerari buruzko prestakuntza emango zaie, esleipendunaren kontura.

c) Bermea.

Era berean, berme epe osoa BI URTE edo 4.500 ordu izango da (lehendabizi gertatzen dena), edo bestela, esleipendunak bere eskaintzan adierazi duena, aipatutako epe horiez bestelakoa bada. Epea, edozein kasutan ere, Behin Betiko Harrera Akta sinatzen den egunetik aurrera kontatuko da, eta horren helburua, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bateginean eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean aurreikusitako ondorioak ziurtatzea izango da.

Berme horren barruan sartuko dira akatsen bat duten edo desegokiak diren piezak edo osagaiak aldatzea, aldaketa hori egiteko edo ekipamenduan antzemandako akatsak zuzentzeko lan-eskua eta beharrezko gastuak, eta aipatutako akatsen ondorioz gerta daitezkeen galeren kalte-ordaina.

Kontratistak bermatu egin behar du ekipoentzako aldakinak badaudela eta hornituko dituela, gutxienez hamar (10) urteko epean, horiek onartzen diren egunetik aurrera.

Baldin eta berme epean zehar GHK-k antzematzen badu hornitutako ondasunak ez direla egokiak bete behar duten helbururako, kontratistari leporatzekoak diren akatsen ondorioz, eta helburu hori lortzeko aldakinak berritzea edo konpontzea ez dela nahikoa izango pentsarazten duten arrazoiak baldin badaude, GHK-k horiek ezetsi eta kontratistaren ardurapean utzi ahal izango ditu aipatutako epearen barruan.

17 ZIGORRAK

Eskaintako behin-behineko harrera epearekiko gertatzen den atzerapen oro zigortu egingo da. Hartzeko epean gertatutako atzerapen-egun bakoitzak 320 €-ko zigorra izango du; eta gainera, beste 1.000 €, eskaintzan jaso gabeko geldialdi tekniko gehigarriko egun bakoitzeko. Zigor horien kopuruak, kontratistari egin beharreko ordainketetan bidezko kenkariak eginez kitatuko dira.



Kontratatzenaren atzerapena zehazteko, GHK-k alde zuzenetik ez du ohartarazpenik egin behar.

18 KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Kontratuaren suntsiarazteko kausak izango dira SPKLTBaren 223. eta 299. artikuluetan aurreikusitakoak eta, oro har, kontratuko edozein betebeharrak ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratuaren aurretiaz suntsiarazteak honako ondorioak izango ditu:

- Kontratuaren bi aldeek adostasunez suntsiarazi bada, GHKk eta kontratatzenak balioz ezarritakora egokituko dira bi aldeek eskubideak.
- Kontratuaren kontratatzenaren ez-betetze errudunaren ondorioz suntsiarazi bada, GHKri eragindako kalte-galerak konpentsatu egin behar izango dizkio, jarritako berrizlearen zenbatekoa gaituzten duten neurrian. Dena den, kontratuaren prezioaren klausula penalak finkatuak dira.

Klausula honetan aurreikusi ez den orotan SPKLTBaren 224, 225 eta 300. artikuluetan xedatutakoa aplikatuak dira.

II. KAPITULUA.- KONTRATUA ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

19 ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratuaren, teknikoki eta ekonomikoki eskaintza onuragarriena egiten duen lizitatuari esleituak zaio, **publizitatezko prozedura negoziatu** bidez.

20 KONTRATATZEKO GAITASUNA.

Kontratazio-prozedura honetan, edozein pertsona fisiko edo juridikoa, espainiarra zein atzerrikoa izan, parte hartu ahal izango du, baldin eta jarduteko gaitasun osoa bada, bere kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatu bada, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 60. artikuluan xedatutako kontratatzeko debekurik ez bada. Kaudimena frogatu eta ebaluatzeak, 23. klausulako f) letraren xedatutako bitartekoak erabiliko dira.

Halaber, beren kabuz edo baimendutako pertsona batek ordezkari egin ahal izango du, horretarako emandako ahalordearen bidez. Pertsona juridiko bateko kideren bat baldin bada haren ordezkaria, horretarako ahalordea duela justifikatu behar izango du dagokion dokumentuaren bidez. Kasu batean zein bestean, arestian aipatutako kontratatzeko bateraezintasunak ere aplikagarriak izango dira ordezkariarengan.

Enpresariak, halaber, kontratuaren xede den jardueraren edo prestazioaren gauzatzeko beharrezkoa den enpresa edo lanbide gaitasuna izan behar izango du, hala badagokio.

Pertsona juridikoak kontratuaren xede izateko aukera bakarria, kontratuaren prestazioak haien jardueraren helburu, xede edo esparruko prestazioak izatea da, beren estatutuen edota eraketa-erregelen arabera.

GHKrekin kontratatzeko gaitasuna izango du, edozein kasutan ere, Espainiatik kanpokoak izan arren Europar Batasuneko estatu kideetakoak diren enpresek, baldin

eta, beren Estatuko legediak xedatutakoaren arabera, eman beharreko prestazioa emateko gaituak badaude.

Enpresa horiei dagokien Estatuko legediak, kasuan kasuko zerbitzua eman ahal izateko, baimen berezi bat izatea edota antolakuntza jakin bati atxikita egotea exijitzen badu, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasunaz kanpoko estatuetako pertsona fisikoek edo juridikoek, oro har aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren txostena aurkeztu beharko dute. Eta txosten horretan egiaztatuko da, atzerriko enpresa horri dagokion Estatuan ere espainiar enpresen partaidetza onartzen dela Administrazioarekin modu oso berdinsuan egin beharreko kontratazioan, eta SPKLTBaren 3. artikuluan aipatutako erakunde, antolakunde edo sektore publikoko antzeko entitateekin egiten diren kontratuetan.

GHKrekin kontratatzeke ahalmena izango dute zede horrekin aldi baterako berariaz eratzen diren enpresek. Horrelakoetan, eraketa hori ez da eskritura publikoan formalizatu beharrik izango, harik eta kontratua beraien alde esleitu arte eta, edozein kasutan ere, SPKLTBaren 59. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

21 PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

1. Proposamenak GHKren bulegoetan aurkeztuko dira, Hernaniko Ibaiondo Poligonoko 27. zenbakiko 3. solairuan, **2015eko MAIATZAREN 25eko eguerdiko ordu bata (13:00) arte.**

Kontratazio honen espedientea GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA erakundearen bulegoetan aztertu ahal izango da, Hernaniko Ibaiondo Poligonoko 27. zenbakian, 3. solairuan, lanegunetan, 08:00etatik eta 15:00ak arte, lizitazio honen iragarkia GHKren Kontratazailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

2. Lizitazio hau kontratazio organoaren kontratazailearen profilean argitaratuko da, eta informazio hori guztia webgune honetan egongo da ikusgai: Webgune horretan bertan ikusi ahal izango dira, halaber, klausula administratiboen agiria eta ezaugarri teknikoaren agiria.
3. Enpresariak postaz bidaltzen badu proposamena, Postetxean zein egunetan eta zein ordutan utzi zuen egiaztatu beharko du, eta bidalketaren berri eman beharko dio kontratazio organoari, egun horretan bertan, telex, fax edo telegrama bidez. **Dokumentazioaren bidalketa, eta bidalketa hori egin izanaren jakinarazpena, iragarkian finkatutako epea bukatzen den eguna eta ordua baino lehen egingo zaizkio kontratazio organoari.**

- Lizitatuzaileak posta elektronikoz ere jakinarazi ahal izango du eskaintza aurkeztu izana; baina bide hori baliagarria izan dadin, ezinbestekoa izango da bidalketa igorri eta jaso izana behar den eran jasota geratzea, komunikazioen datak eta eduki osoa agerikoak izatea, eta igorlea eta jasotzailea modu sinesgarrian identifikatuta egotea. Kasu horretan, hala eginez gero, kopia inprimatua espedientean sartuko da.
- Bi baldintza horiek betetzen ez badira, eta GHK-k iragarkian adierazitako eguna eta ordua bete ondoren jasotzen badu proposamena, ez da onartuko. Hala eta

gutziz ere, esandako eguna iritsi eta hurrengo hamar (10) egun naturala igarotzen badira dokumentazioa jaso gabe, beraz ez da inolaz ere onartuko. Herri Administrazioetako Kontratuen Legeko Araudi Orokorreko 80.4 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

4. Parte hartzeko eskaera kontratazio organoak adierazitako egoitzan aurkezten denean, organo horrek partaidetza eskaera erregistratuko du eta horren kopia zigilatu bat emango dio lizitazaileari, aurkezpen frogagiri gisa. Bertan, lizitazailearen izena, kontratuaren xedearen izena eta proposamena zein egunetan eta ordutan aurkeztu den zehaztuko da. Informazio hori guztia I. Eranskinean ageri den ereduaren bidez emango da.

22 DOKUMENTAZIOAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Lizitazaileek aurkezten duten dokumentazioak baldintza hauek bete beharko ditu:

1. Proposamenak aurkeztean, lizitazaileak inolako salbuespenik gabe eta oso-osorik onartzen ditu agiri honetako eta baldintza teknikoen agiriko klausulak, baita gainerako kontratu dokumentuetakoak ere. Horrez gain, aurkeztutako datu guztiak zehatzak eta egiazkoak direla dioen erantzukizuneko adierazpena ere onartzen du, eta klausulen agiri honetako kontratazioaren xederako eskatzen diren baldintza guztiak beretzen dituela ere aitortzen du.
2. Lizitazaille bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, eta ezingo ditu proposamen beraren aldaera bat baino gehiago aurkeztu. Halaber, ezingo du beste lizitazaille batzuekin batera aldi baterako elkarte eginez proposamenik aurkeztu, aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko enpresa horrek izenpetutako proposamen bakar bat ere.
3. Aurkeztutako dokumentazioa Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialeko batean egon beharko da idatzita (euskaraz ala gaztelaniaz). Beste hizkuntza batean idatzita badago, dagokion itzulpen ofizialarekin batera aurkeztu beharko da.
4. Paperean zein euskarri informatikoan (Word, Presto 8.8, Excel, mpp, pdf, dwg... formatuetan) eman beharko da informazio guztia, CD batean, betiere Agiri honetan xedatutako baldintzetan. Bi euskarrietan emandako datuak edo informazioak bat ez badatoz, paperean aurkeztutako dokumentazioko edukia gailenduko da.

Eskaintzak makinaz idatzita edo inprimatze mekaniko edo informatikoko bestelako baliabide batez inprimatuta aurkeztu beharko dira. Ez da eskuz idatzitako dokumenturik onartuko, ezta gabezia, akats edo zirriborrorik duen dokumenturik ere, eskaintza baloratzeko baldintzak argi ikusten uzten ez badute. Halaber, ez da Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorreko 84. artikuluan aipatzen diren kasuak betetzen dituen proposamenik onartuko.

Zehazki, Baldintza Agiri honekin batera doan dokumentu informatikoan aurkeztu beharko da eskaintza ekonomikoa, eta horren formatua aldaezina izango da.


5. Ez da Herri Administrazioetako Kontratuen Legeko Araudi Orokorreko 84. artikuluan xedatutako kasuren bat betetzen duen proposamenik onartuko. Beraz, aztertutako eta onartutako dokumentazioa ez badatoz bat, baldintza agirietan

2015 API. 3 0

Aprobado por Consejo de Administración. (e)an onartua

Hernani,

2015 API. 3 0
AER. 3 0



xedatutako ereduarekin bat ez badatoz, eskaintzaren zenbatekoan ageriko akatsak baditu edo lizitatzailleak onartzen badu bideraezin egiten duen akatsa edo ahultasuna duela, proposamenak ez dira onartuko.

6. Prozedurara aurkezten diren eskaintzak osatzeko dokumentazioa prestatzeko kostu osoa lizitatzailleen kontura joango da, eta horiek ezingo dute inolako konpentsazio ekonomikorik eskatu, baldin eta azkenean ez badira esleipendun suertatzen.
7. Eskatzen den dokumentazio guztia kopia soil edo kopia konpultsatu gisa aurkeztuko da, erantzukizuneko adierazpenak izan ezik. Kopia bakuna entregatu badu, GHK-k jatorrizko dokumentazioa edo Administrazioak ala notarioak behar bezala konpultsatu edo legeztatutako kopia eskatuko dio lehen sailkatuari.

23 PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA.

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresa lizitatzailleek, GHK-ko bulegoetan, eta Baldintza Agiri honetako 21. klausulan xedatutako epearen barruan, **gutun-azal itxi bat** aurkeztu beharko dute, aurrerago zehaztuko den dokumentazioarekin, eta gutun-azal horren kanpoaldean honako izenburua ipiniko da: **“LEGAZPIKO ONTZI ARINAK SAILKATZEKO PLANTAN, BALBULA BIKOITZEKO BEREIZGAILU OPTIKOA ETA INDUKZIOZKO BEREIZGAILUA HORNITU, MUNTATU ETA EZARTZEKO KONTRATUAREN LIZITAZIOA”**.

Gutun-azalean enpresaren izena, proposamena sinatzen duen pertsonaren izen-abizenak eta kargua zehaztuko dira, eta gutun-azalak sinatuta egon beharko du.

Gutun-azalak dokumentu hauek izango ditu:

- a) **Gutun-azalean doazen dokumentuen zerrenda.**
- b) **Parte hartzeko eskaera,** I. Eranskineko ereduaren arabera egina
- c) **Enpresariaren jarduteko gaitasuna frogatzen duen ziurtagiria eta ordezkariarena, halakorik izanez gero,** Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorreko 21. artikuluan xedatutakoa betez.

Jarduteko gaitasuna frogatzeko bide hauek erabiliko dira:

- Partaidearen edo horren ordezkariaren Nortasun Agiriaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo entitate baten ordezkariak egiten badu proposamena, ahalorde notariala. Erakunde honek, gutun-azal horretan aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzeko prozesuan, ahalorde hori askietsiko du.
- Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, eraketa edo aldaketa eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala erregistratutakoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, merkataritza legeria aplikagarriaren arabera, erregistratuta egotea exigigarria bada. Inskripzio hori ez bada exigigarria, jarduteko gaitasuna egiaztatzeke, osaketa eskritura edo dokumentua, estatutuak edo fundazio egintza aurkeztu behar dira; pertsona juridiko horren jarduera arautzen duten xedapenak agertu beharko dira, eta dagokion Erregistro ofizialean behar bezala inskribatuta dagoela ere egiaztatuko da.

2015 API. 3 0

Aprobado por Consejo de Administración. (e)an onartua

Hernani,

2015 AP. ABR. 3 0

- Espainiatik kanpoko enpresarien kasuan, Europar Batasuneko Estatu-kideetakoak badira, enpresaren Estatuko legediak xedatutakoaren arabera, dagokion Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatuz frogatu beharko dute beren jarduteko gaitasuna. Bestela, erkidegoko aplikazio xedapenei jarraiki, ziurtagiri edo zinpeko aitortpen bat aurkeztuko dute.
- Atzerriko gainerako enpresariak, jarduteko gaitasuna dutela egiaztatzeko, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren txostena aurkeztu beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko Kontsuletzeko Bulegoaren txostena.
- Aldi baterako enpresa elkarte baten barruan parte hartu nahi duten enpresariak elkarte hori osatzen duten enpresen izen eta egoerak, hala nola bakoitzak izango duen partaidetza adierazi beharko dute. Era berean, esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoa hartuko dute. Aldi baterako elkartearen eratzuz lehiatzen diren enpresariak betebeharrak solidarioak izango dute, eta enpresariaren elkartearen izenean ordezkari edo ahalduen bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko kontratua azkendu arteko ahalorde askirekin; nolahi ere, zenbateko handi samarrak kobratzeko eta ordaintzeko ahalorde mankomunatuak eman ahal izango dituzte enpresek.

Aldi baterako enpresa elkartearen osatzen duten enpresarietako bakoitzak, bere gaitasuna eta kaudimena frogatu egin beharko ditu Agiri honetan xedatutakoaren arabera. Aldi baterako enpresa elkartearen kaudimena zehazterakoan, enpresari bakoitzak egiaztatutako ezaugarriak bateratu egingo dira, herri administrazioen kontratuei buruzko legearen erregelamendu orokorra (aurrerantzean HAKLEO) onartzen duen 2001eko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuan aurreikusitakoa baldintzatu gabe, erregelamendu hori guztiz aplikagarria baita ondorio hauetarako.

d) Berariazko eta erantzukizuneko adierazpena aurkeztu beharko da, agiri honen **II. Eranskinean** jasotako ereduaren erabiliz, eta bertan adierazi beharko da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 60. artikulua xedatutakoaren arabera, eta artikuluko horretako 1. apartatuko c) letrak laneko segurtasun eta osasun alorreko arau hauste oso larriagatik zigor irmorik jaso ez izateari buruz dioena aipatuz; bai eta zerga alorreko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dagoela, Herri Administrazioetako Kontratuen Legeko Araudi Orokorren 13. eta 14. artikuluetan xedatutako moduan eta irismenean.

e) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emana dagoela ziurtatzen duen frogagiria, hain zuzen ere kontratuaren xedari dagokion epigrafean. Horretarako, alta aurkeztuko da, baldin eta indarrean dagoen ekitaldian egin bada; edo bestela JEZaren azken ordainagiria aurkeztuko da. Bi kasuetan, zerga horren matrikulan baxerik eman ez duela dioen erantzukizuneko adierazpena ere aurkeztu beharko da (**II. Eranskina**).

f) Horrez gain, entitate lizitatuak honako kaudimen baldintza hauek bete beharko ditu lehiaketa publikoan parte hartu ahal izateko:

2015 API. 3 0

(e)an onartua
Aprobado por: Consejo de Administración.

Hernani,

2015 API.
ABR. 3 0

f.1) **Kaudimen tekniko eta profesionala** frogatzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 77. artikuluan xedatutakoa beteko da; hau da, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Azkeneko bost urteetan egindako hornikuntza nagusien zerrenda. Ontzi/arinak sailkatzeko plantetan ezaugarri berdintsuetako ekipoak behin behintzat hornitu izana frogatu beharko da, zenbatekoa, datak eta ekipoen hartzailea publikoa edo pribatua izan den adieraziz. Egindako hornikuntzak frogatzeko, organo eskudunak egindako ziurtagiriak edo bisatuak aurkeztu beharko dira, baldin eta hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan bada; aldiz, hartzailea erosle pribatua izan bada, beronek egindako ziurtagiria aurkeztuko da eta, horrelakorik izan ezean, enpresariak egindako berariazko adierazpena.

f.2) **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa** frogatzeko, bitarteko hauetako bat erabili ahal izango dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 75. artikuluan xedatutakoaren arabera:

- a) Urteko negozio bolumena, edo kontratuaren helburu den esparruan egindako urteko negozio bolumena; eta horrek, lizitazioaren iragarkian eta kontratuko baldintza agiritan exijitutako kopurua hainbatekoa edo handiagoa izan beharko du.
- b) Aseguru enpresak egindako ziurtagiria, erantzukizun zibileko aseguruia indarrean dagoela egiaztatzen duena. Aseguru horrek 600.000 euroko estaldura izan beharko du gutxienez (ezbehar bakoitzeko), eta kontratu hau bultzatu duen hornidura gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragin dakiekeen era guztietako istripu, kalte pertsonal eta kalte materialak estaliko ditu.

g) Atzerriko enpresek Espainiako edozein esparrutako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren irizpenera jartzeko borondatea adierazten duen adierazpena aurkeztu beharko dute, era horretan, kontratua dela-eta sor daitezkeen zuzeneko edo zeharkako auziak jurisdikzio horren barne bideratzeko, dagokion atzerriko jurisdikzioari uko eginez gainera.

Europar Batasunetik kanpoko atzerriko enpresen kasuan, gainera, Espainian bulegoa dutela frogatu beharko dute, baita beren eragiketak egiteko ahaldun edo ordezkariak izendatuta dituztela eta Merkataritza Erregistroan izena emanda daudela ere.

Enpresa horiek aurkezten duten dokumentazioa modu ofizialean egon beharko da itzulita gaztelerara edo euskarara, hain zuzen ere Herri Administrazioetako Kontratuen Legeko Araudi Orokorreko 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

h) Prozedura honen ondorioz egingo diren jakinarazpenak zein helbide elektronikora bidali behar diren, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 151.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

i) Txosten teknikoa

Ezaugarri Teknikoen Agiriaren 6. atalean ezarritakoari jarraituz, lizitatzailer bakoitzak txosten tekniko bat sartuko du bere eskaintzan. Eta txosten horretan, apartatu horretan azaldutako baldintza teknikoak zehaztuko dira, aipatutako agiriaren 3. apartatuan azaldutakoak bezalaxe.

j) Proposamen ekonomikoa

Baldintza agiri honi atxikitako **III. Eranskinean** zehaztutako ereduaren arabera proposamen ekonomikoa aurkeztu beharko dute lizitatzailerak.

Dokumentu horretan adierazitako zenbatekoaren barruan sartutako joko dira kontratazioa eta obren egikaritzea dela-eta sortu diren edo sortuko diren gastu guztiak; eta zehazki, honako hauek:

- Kontratua formalizatzeko gastuak, halakorik balego.
- Kontratutako prestazioa betetzeko orduan, esleipendunak egin beharreko gastuak: gastu orokorrak, gastu finantzarioak, aseguruak, tasak, fidantzak, entseguak, garraio eta joan-etorriak, bere kargu dituen teknikarien eta laguntzaileen ordainsariak eta dietak, eta Agiri honetan xedatutako gainerako gastuak.
- Tributu mota guztiak, BEZa, eta kontratuaren indarraldian ezarri edo alda daitezkeen beste edozein.
- Hornitutako ekipoen erabilerari buruz instalazioko langileei emandako prestakuntza ikastaroak eragindako gastuak.

Kontratua esleitu baino lehen, edo kontratua esleitu ondoren, eta kontratuaren iraunaldian zehar, GHK SAUK proposamenaren edukia egiazkoa ote den egiaztatu ahal izango du, kontuan hartuta enpresak aurkeztutako datu eta baldintzak faltsuak badira, hori kontratua iraungitzeko arrazoi izan daitekeela, zehazki, kontratudunari egotziko litzaiokeen ez-betetzearen ondorioz, eta beraz, behin behineko bermea galduko lukeela azken horrek.

Proposamena enpresa multzo batek egiten badu, multzo hori osatzen duten enpresa guztiek sinatu beharko dute proposamena.

Lizitatzaileraren batek ez badu esleipen irizpideei lotutako dokumentazioa aurkezten, edo dokumentazio horrek ez baditu aurreko paragrafoetan xedatutako baldintza guztiak zehaztuta, lizitatzaileraren proposamena ez da baloratuko dagokion irizpideari dagokionez.

a) eta d) ataletan xedatutako baldintza frogatzeko, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialaren edo Estatuko Kontratisten eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria aurkeztu beharko da, edo bestela, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 84. artikuluan xedatutako Europar Batasuneko sailkapen ziurtagiria. Ziurtagiri horrekin batera, lizitatzaileraren erantzukizuneko adierazpena aurkeztu beharko da, ziurtagirian ageri diren baldintzak aldatu ez direla esanez.

2015 A.P.I. 30

(e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 A.P.I.
ABR. 30

Idazkaria

24 KONTRATUAREN IZAPIDEAK ETA NEGOZIAZIO FASEA

GHKko teknikariek garaiz eta behar bezala kalifikatuko dituzte aurkeztutako dokumentuak, eta zuzen daitezkeen akatsak zein ez-egiteak antzematzen badituzte, gehienez hiru (3) egun balioduneko epea emango diote lizitatzailari, akats edo omisio horiek zuzen ditzan.

Aurkeztutako dokumentazioan antzemandako akatsak edo omisioak zuzendu ostean, halakorik balego, eta eskatzaileen nortasuna eta kaudimena egiaztatu ondoren, negoziazio fasea irekiko da. Fase horretan, segidan adieraziko diren alderdi ekonomiko eta teknikoak landuko dira.

Hauek dira negoziazio fasean hizpide izango diren alderdi ekonomiko eta teknikoak: (prezioa, berme epea, mantentze lanetarako lantegien hurbiltasuna, hobekuntzak, ...)

25 AURKEZTUTAKO ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.

Aurkeztutako eskaintzen balorazioa egiteko, honako irizpide hauei jarraituko zaie:

25.1. Formula aritmetikoak erabilia baloratzen diren esleipen irizpideak: 65 puntu gehienez.

A) PREZIOA: 50 puntu gehienez.

Onartutako eskaintza ekonomikoen puntuazioak eskaintza horien arabera kalkulatu dira, interpolazio linealaren bitartez; hau da, P1 puntuak (Merketze maximoa, Puntuazio maximoa) eta P2 puntuak (Zero merketzea, Zero puntuazioa) definitutako lerro zuzenaren barruan, bi puntu horiek mugatutako segmentuan.

Eskaintzetako "prezioa" elementua baloratzeko, soil-soilik lizitatzailerek eskaintako prezioa (BEZ gabe) hartuko da kontuan; hau da, baldintza administratibo berezien agiriko III. Eranskineko ereduari jarraituz eskaintako prezioa.

Hauek dira arestian aipatutako puntuak:

P1 – Eskaintza merkeenari dagokiona (Merketze maximoa). Horri emango zaio puntuazio maximoa, P_{max}.

P2 – Lizitazioaren oinarritzko prezioari dagokiona. Horri 0 puntu emango zaio.

Lizitatzaille bakoitzak lotutako puntuazioa (P), honako ekuazio honen emaitza izango da:

$$P = (P_{\max} \times M) / M_{\max}$$

Non (M_{\max} = Merketze maximoa)

Merketzea (M) da lizitazioaren oinarritzko prezioaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko diferentzia, zati lizitazioaren oinarritzko prezioa.

Balorazio ekonomikoa egiteko, onartutako oinarrizko eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Merketze ausartegizat edo neurritz kanpokotzat joko da, onartutako oinarrizko proposamen guztien merketze-portzentajeen batez besteko aritmetikoa gutxienez 10 unitatetan gainditzen duen proposamen ororen jaitziera. Eta halakotzat deklaratzeko, aldez aurretik informazioa eskatuko zaie merketze ausartegia edo neurritz kanpoko jaitziera egin duten lizitatzailerak guztiei; era berean, kasuan kasuko zerbitzuko aholkularitza teknikoa eskatuko da.

B) KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA: 10 puntu gehienez.

Gehienez 10 puntu arte emango dira: 0 puntu 14 asteko entrega epea eskaintzen duen proposamenari, eta 10 puntu entrega epe laburrena eta instalazioaren geldialdi laburrena eskaintzen duenari.

Gainerako puntuak, aste kopuruaren arabera estrapolazio lineala eginda emango dira.

25.2. Formula aritmetikoak erabilia baloratzen ez diren esleipen irizpideak: 35 puntu gehienez.

A) EZAUGARRI TEKNIKOAK: 20 puntu gehienez.

Lizitatzailerak, azaldutako proposamenari jarraituz aurkeztuko dute beren eskaintza. Dena den, aukera gehigarri bat ere aurkez dezakete, ekipoak kokatzeko beste leku bat proposatuz, baldin eta aukera hori teknikoki bideragarria bada, agiri honen helburuaren diseinua mantentzen bada eta, edozein kasutan ere, gaur egungo tratamendu prozesua eta ustiapena kaltetuko ez badira.

Atal honetan proposamen egokienari 20 puntu emango zaizkio gehienez. Hori GHK-ko teknikariek baloratuko dute, aurkeztutako eskaintzen arabera.

B) AUKERA GEHIGARRIA, BALDIN ETA OINARRIZKO PROPOSAMENA TEKNIKOKI HOBETZEN BADA: 10 puntu gehienez.

Atal honetan 10 puntu emango zaizkio gehienez, oinarrizko proposamena teknikoki hobetzen duen hautabide tekniko gehigarria proposatzen duen eskaintzari. Hori GHK-ko teknikariek baloratuko dute, aurkeztutako eskaintzen arabera.

C) HOBETUNTZAK KONTRATUA GAUZATZEKO EPEAN: 5 puntu gehienez.

Behin-behineko harrera egiteko epeak eta instalazioaren guztizko geldialdia optimizatzen duten eskaintzak lehenetsiko dira. Ekoizpenekoak ez diren geldialdietan (jaiegunak barne) baloratu egingo dira bai instalazioa eta bai martxan jartzea; bai eta plantaren geldialdi denborak optimizatzen dituzten denborak ere.

D) HOBETUNTZAK MANTENTZE LANETAN: 3 puntu gehienez.

E) HOBEKUNTZAK EKIPOEN BERMEAN: 2 puntu gehienez.

Esleipenduna aukeratzeko unean aintzat hartuko dira, bai aurkeztutako irtenbide teknikoaren konparaziozko abantailak, eta bai hornitzaileak proposa ditzakeen hobekuntza ekonomikoak (aldatzeko piezen hornidura, mantentze lanek doako epealdia, berme epea, eta abar). Era berean, hornidura egiteko epea ere baloratu egingo da, kontratua gauzatzeko epea bezalaxe (instalazioaren gutxieneko geldialdi denbora).

Kontratuaren esleipendun izateko, esleitzeko irizpide teknikoetan gutxienez 25 puntu beharko dira derrigorrez. Puntuazio hori lortzen ez duten eskaintzak baztertu egingo ditu Kontratazio Mahaiak, bidezko arrazoiak emanda.

26 KONTRATAZIO MAHAIA

GHK SAUko Kontratazio Mahaiak jardungo du kontratazio mahai gisa.

27 ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA

27.1 . Eskaintzen sailkapena.

GHKko teknikariek garaiz eta behar bezala kalifikatuko dituzte aurkeztutako dokumentuak, eta zuzen daitezkeen akats zein ez-egiteak antzematen badituzte, gehienez hiru (3) laneguneko epea emango diote lizitatzailari, zuzen ditzan.

GHKko teknikariek dagokion Txosten Teknikoa idatziko dute; eta horretan, bidalitako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, horiek onartu edo ukatzeko arrazoiak, eta egindako negoziazioak bilduko dituzte. Txosten hori Kontratazio Mahaiari helaraziko zaio.

Kontratazio Mahaiak, bere proposamena egin baino lehen, kontratazio organoari helaraziko dion eskaintza sailkapenerako beharrezkoak diren txosten tekniko eta juridikoak eskatu beharko ditu.

Kontratazio organoak sailkatu egingo ditu aurkeztutako proposamenak, puntuazio altuena duenetik gutxien duenera, eta Kontratazio Mahaiak egindako esleipen proposamena kontuan hartuta, ekonomikoki onuragarriena den proposamenari esleituko dio kontratua.

Kontratazio organoak **ekonomikoki eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailari eskatuko dio aurkez dezala**, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita hamar **(10) laneguneko epean**, jarraian zehaztuko den dokumentazioa:

- esleipen prezioaren % 5aren behin betiko bermea ezarri izanaren frogagiria, eta
- zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean dagoela ziurtatzen duen dokumentazioa; edo bestela, kontratazio organoari dokumentazio hori zuzenean egiaztatzeko baimena ematea. Dagozkion ziurtagiriak bide elektroniko, informatiko edo telematikoak erabilia egin ahal izango dira, agirietan besterik zehazten ez bada behintzat.

2015 AP. 3 0

Aprobado por Consejo de Administración. (e)an onartua

Hernani,

2015 AP. 3 0



Idazkarik,

- Lanak egiteko Segurtasun Plana. Horretan zehaztuko dira aurreikusitako eragiketak, berauen arriskuak eta aintzat hartu diren babes neurriak.

Esleipendunak kontratu hori eskritura publikoan ezartzea eska dezake. Halakorik gertatzen bada, eskritura formalizatzearen gastuak bere kontura izango dira.

Kontratua sinatzen den ekitaldi berean, kontratuaz gain, esleipendunak Klausula Administratibo Berezien Agiri hau, Ezaugarri Teknikoen Agiria eta aurkeztutako eskaintza ere sinatuko ditu, eta horrela jasota utziko du horiek ezagutzen dituela eta ados dagoela.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeko testu bateginekoko 155. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua sinatzeari uko egiten bazaio edo prozedura horretan atzera egiten bada, lizitazioa dela-eta lizitatzailerek ordaindu behar izan dituzten gastuengatik kalte-ordainak zehaztuko ditu GHK-k, haiei entzunaldia eman eta gastuak justifikatu ondoren.

Kontratistari egoztekoak diren arrazoiak direla-eta, kontratua sinatzen ez bada, hori indargabetzea erabaki dezake GHK-k, interesatuari entzunaldia eman ondoren; eta hori gertatzen bada, kalte eta galeren kalte-ordainak eman beharko ditu interesatuak.

III. KAPITULUA.- ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.

29 KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu honek izaera pribatua du, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duenak (aurrerantzean HAKLTB) 20.1. artikuluan xedatutakoari jarraiki; eta Klausula Administratibo Berezien Agiri honetan (aurrerantzean, klausula administratiboen agiria edo Agiria) eta haren eranskinetan, Baldintza Teknikoen Agirian zein bestelako kontratuaren dokumentuetan xedatutakoak arautuko du, 6. klausulan xedatutako baldintzetan.

Prestakuntzari, esleipenari, eta ondorio zein indargabetzeari dagokionez, Klausula Ekonomiko Administratiboen Agiri honek eta Baldintza Teknikoen Agiriak arautuko dute kontratua, eta bi dokumentu horiek arautu gabeko kasuetan, GHK-ko Barne Kontratazio Jarraibideak, eta horrek arautu gabeko kasuetan, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

Halaber, Sektore Publikoko Kontratazioei buruzko Legearen Testu Bateratua eta Herri Administrazioetako Kontratuen Legeko Araudi Orokorra (aurrerantzean, HAKLAO) aplikagarriak izango dira Agiri honek araudi horiei zuzenean erreferentzia egiten dienean.

30 JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jurisdikzio ordena zibila izango da kontratuaren prestakuntzari, esleipenenari, ondorioei, betetzeari edo indargabetzeari buruz, aldean artean gerta litezkeen desadostasunak erabakitzeko eskumenduna.

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2015 API. 30

Aprobado por Consejo de Administración. (elan onartua)

Hernani, 2015 AP. ABR. 30



GHK
Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

Idazkariak,



I. ERANSKINA- ERREGISTROAN ENTREGATZEKO PROPOSAMEN EREDUA


..... jaun/andereak, zenbakidun nortasun agiria duenak, bere izenean edo zenbakidun IFZ, helbidea, fax zenbakia eta/edo helbide elektronikoa duen enpresaren izenean,

ADIERAZTEN DU:

Gaurko eguneko (*) (e)tan, **"LEGAZPIKO ONTZI ARINAK SAILKATZEKO PLANTAN, BALBULA BIKOITZEKO BEREIZGAILU OPTIKOA ETA INDUKZIOZKO BEREIZGAILUA HORNITU, MUNTATU ETA EZARTZEA"** kontratatzeke proposameneke 2 gutun-azalak entregatzen dituela.

Hernani, 20....koren(e)an.

Aurkezlearen sinadura

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK
2015 APL 30 (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.
Hernani, 2015 ABR: 30

GHK
Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

(*) Erregistroko arduradunak bete beharreko hutsunea

GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETAKO ERREGISTRO NAGUSIA

II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEZKO ADIERAZPENAREN EREDUA

..... jaun/andereak, adinez nagusiak,
..... zenbakidun nortasun agiria eta
..... helbidea duenak (..... telefono
zenbakia,fax zenbakia, helbide
elektronikoa), norberaren izenean edo zenbakidun IFZ,
..... helbidean egoitza,telefono zenbakia,
..... fax zenbakia eta helbide elektronikoa dituen
..... (merkataritza entitatearen ordezkari gisa), adierazten du, bai
berak bai ordeztzen duen enpresak gaitasuna dutela Administrazio Publikoarekin
kontratatzeko, jarduteko gaitasun osoa dutenez, ez baitago Sektore Publikoko
Kontratuen Legeko testu bateginak 60. artikuluan xedatutako kasuren batean. Zehazki,
adierazten du ez duela zigor irmorik jaso segurtasunaren eta laneko osasunaren
esparrian arau hauste oso larri bat egiteagatik, hau da, ez duela Sektore Publikoko
Kontratuen Legeko testu bategineko 60.1 artikuluan xedatutako baldintza betetzen.

Halaber, aitortzen du:

- Egunean dagoela indarrean dauden xedapenek zerga alorrean eta Gizarte Segurantzaren ezarritako betebeharretan, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak 13. eta 14. artikuluetan jasotako hedaduran (2001eko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua).
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta ez duela bajarik eman zerga horren matrikulan.

Hernanin, 2015ekoren(e)an.

Sinadura

III. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

“.....jaun/andereak,
.....h
elbidea duenak,zenbakidun nortasun
agiria,.....telefono zenbakia, eta.....
helbide elektronikoa dituenak, gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren
erabateko jabetza duela, bere izenean (edo
.....ent
itatearen izenean,
helbidea eta zenbakidun nortasun agiria edo IFZ duena [pertsona fisiko
edo juridikoa bada]), GHKren eskutik **LEGAZPIKO ONTZI ARINAK SAILKATZEKO
PLANTAN, BALBULA BIKOITZEKO BEREIZGAILU OPTIKOA ETA INDUKZIOZKO
BEREIZGAILUA HORNITU, MUNTATU ETA EZARTZEA** kontratatzeko publizitatedun
prozedura negoziatuan parte hartzeko gonbitea jaso ondoren,

ADIERAZTEN DU:

1.) Kontratu hori gauzatzeko konpromisoa hartzen duela, euroko prezioan
(BEZ sartu gabe).

Horrez gain, prezioari dagokion BEZa fakturatuko da.

Prezio horren barruan sartutzat jotzen dira kontzeptu guztiak, hala nola zergak, gastuak,
tasak eta arielak, edozein zerga esparrutakoak, eta kontratistaren mozkin industrialak.

2.) Kontratu hau arautzen duten Klausula Ekonomiko Administratiboen Agiria eta
Baldintza Teknikoen Agiria ezagutzen dituela, horiek erabat onartu eta ontzat hartzen
dituela.

3.) Oordezkutzen duen enpresak betetzen dituela zerga esparruan eta Gizarte
Segurantzakoan indarrean dagoen araudiak xedatutako baldintza eta obligazio guztiak.

.....n, 2015ekoren(e)an.

Sinadura.

IV. ERANSKINA. BERME EREDUA

..... entitateak, zenbakidun IFK duenak eta
..... helbidea duenak, egintza honetan parte hartzeko beharrezko
boterea duelarik, eta agiri honetako beheko aldeak ahalorde askiestuen arabera,
.....zenbakidun IFK duen erakundea BERMATZEN
DU Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SA sozietatearen aurrean,
..... euroko zenbatekoan, **LEGAZPIKO ONTZI ARINAK
SAILKATZEKO PLANTAN, BALBULA BIKOITZEKO BEREIZGAILU OPTIKOA ETA
INDUKZIOZKO BEREIZGAILUA HORNITU, MUNTATU ETA EZARTZEA** kontratutik
ondorioztatzen diren obligazioei erantzuteko.

Entitate bermatzaileak bere erantzukizunpean adieraz ten du urriaren 2001eko 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio Publikoekiko Kontratuei buruzko Legearen Araudi Nagusia onartzen duenak, 56.2. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen dituela. Berme hau solidarioki eman zaio zergadun nagusiari, eta eskusio, ordena eta zatiketa eskubideari espresuki uko egiten dio. Halaber, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAU sozietateak egindako lehen errekerimenduaren aurrean ordaintzeko konpromisoa hartzen du.

Berme hau indarrean egongo da, harik eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUK hori ezeztu edo itzultzea baimendu arte.

Hernanin, 2015ekoren(e)an.

Sin.: